

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Garapen Ekonomikorako Departamentuak I+Gko proiektuetarako laguntzen deialdia egin du, eta 12 milioi bideratuko ditu horretara

*Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 22an amaitzen da, eta proiektuak 2019ko abenduaren 31 baino lehen burutu beharko dira*

Asteartea, 2018.eko urtarrilak 23

Garapen  
Ekonomikorako  
Departamentuak,  
Industriaren,  
Energiaren eta  
Berrikuntzaren  
Zuzendaritza  
Nagusiaren  
bitartez, [I+Gko  
proiektuei laguntzak  
emateko 2018ko  
deialdia onartu](#) du.



Enpresa bateko instalazioetako laborategia

Laguntzen zenbatekoa, guztira, 12.000.000 euro izango da 2018rako, 2019rako eta 2020rako. [Eskaerak aurkezteko](#) epea otsailaren 22an amaitzen da, eta diruz lagundutako proiektuek bukatuta egon behar dute 2019ko abenduaren 31rako.

Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 22an amaitzen da, eta diruz lagundutako proiektuek bukatuta egon behar dute 2019ko abenduaren 31rako.

Guztizko zenbatekoa honela dago banatuta:

3 milioi 2018rako, 6 milioi 2019rako, eta 3 milioi 2020rako. Proiektu-motaren arabera, 4 milioi bideratuko dira banakako proiektuak diruz laguntzera, beste 4 milioi enpresen lankidetzako proiektuetara, eta beste 4 milioi ezagutza transferitzeko proiektuetara.

Proiektuak burutzeko, bi urtealdi ezartzen ditu deialdiak: lehenengoa, proiektua hasten denetik 2018ko abenduaren 31ra arte, eta, bigarrena, 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, data horretan amaituko baita proiektua burutzeko epea.

Hainbat urtetarako gastua, gehienez, 1.500.000 euro handitu ahal izango da, eta hura emateko ez da beste deialdirik egin beharko.

Jakina denez, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren ildo estrategikoetako bat berrikuntza da, horretan oinarritzen baita, besteak beste, Nafarroako enpresen lehia-ahalmena.

Haren ustez, berrikuntza eta punta-puntako industria aurreratua banaezinak dira, eta, zenbat eta berrikuntza handiagoa izan, orduan eta kalitateko enplegu gehiago sortuko da —hori da Nafarroako Gobernuaren lehentasunezko helburuetako bat—.

Foru Gobernuak onartutako Espezializazio Adimendunaren Estrategiak (S3) jasotzen dituen lehiakortasun-faktoreen artean dago I+G+Ba, eta, haren bitartez, ezagutza zientifiko eta teknologikoa sortzea, baliaraztea eta aplikatzea bultzatu nahi da, Nafarroako enpresei balio handiagoa emateko.

Aurrekoarekin bat, eta hainbat urtetarako gastuei buruzko araudia betez, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen, azaroaren 22an, deialdi honetarako behar diren gastu-konpromisoak hartzeko eta haiek aldeztu izapidetzeko.